



## IRAILEZ GEROZTIK BIGARREN BILERA SAILAREKIN: ETSIGARRIA!

---

Lakua, 2017-05-29

Gustatuko litzaigukeen oker egon bagina, baina ez, zuzen genbilen. Aurreko orri informatiboan komentatu genizuen: manera adeitsuak baina mamirik ez. Eta azkenean erakutsi diguten mamia erabat negatiboa da.

Isabel Gabriel zuzendari berria, Begoña Otazua eta saileko beste hiru pertsona gehiago egon ziren, azken hauek oharrak jasotzen.

Miren Gallastegui sailburuordeak minutu gutxiren buruan alde egin zuen, zeraman presa disimulatu gabe. Lehenengo bileran (martxoak 28) sindikatuoi esan zizkigun guztietatik bakar bat ere ez da bete eta are txarragoa dena: ez daukate inolako asmorik betetzeko. Dakiguna da gezurra esan eta sindikatuok engainatu gintuela eta luzamenduetan ibili dela, eta dabil. Ez zuen ba elkarlana eskatzeko beste azala izan!

### AUZITEGI MEDIKUAK

Hiru forentse ere joan ziren bilerara eta beste behin ere euren aldarrikapenak azaldu zituzten. Gaur egun erantzuna betikoa da: aztertu ondoren ikusi beharko dute, baina uste dute arazoak sortu daitezkeela. Eusko Legebiltzarrak auzitegi medikuentzako parekidetasuna onartu zuen, parlamentari batzuen eskariz, oraingo sailburuordea tartean; Sabin Etxearen aurrean Eusko Jaurlaritzaren aurka eta auzitegi medikuen aldeko manifestazio batean egona da oraingo sailburuordea; zer gertatu ote da ulertu ahal izateko oraingo sailaren jokabidea, sailburuordeak esandakoaren kontrakoa egiten baitu. Gobernuan zazpi hilabetez egon eta gero oraindik luzamenduetan dabilta. Inork uste al du, agindutakoa betetzeko asmoa balute, Miren Gallastegui ez ziekeen forentseei esango?, edo sindikatuoi? Lehen esan moduan, astelehenean bileratik arrapaladan irten zen ez zuelako nahi izan gezurretan harrapatzea.

Berriro ere LABek eskatu zuen agindutakoa betetzeko, ez dezakegulako denbora galdu eta gogaituta gabiltzalako horrenbeste gezur eta luzamenduekin. Gehienez jota hilabetean erantzun behar dute: bai ala ez. Eta ezezkoa jasoz gero auzitegi medikuekin hitz egin beharko dugu eta ikusi zer egin elkarrekin.

### 2012ko APARTEKO LANSARIA

Sailburuordearen beste gezur bat. Martxoko batzarrean, aurreko sailaren kontra sekulakoak bota ostean, ziurtzat eman zuen apartekoa osorik ordainduko zigitela eta ez zuela ulertzen zergatik ez zutela lehenago egin... Egun, zuzendariak jakinarazten digu dena pagatuko duela bi egun izan ezik. Hots, sententziek behartuta ordainduko dutela. Gure aldetik esan genion egon badaudela epai batzuk zeintzuen bidez dena-dena, berandutza-korrituak barne,

ordaindu behar duten. Ebazpen horiek bete eta ordainduko dutela baina ez langile guztiei. Esan zuenaren arabera, ordaindu nahi ez dituzten bi egun horiek pagatuko dizkigutela Administrazio Orokorrean apartekoa osorik kobratzen dutenean.

A! eta orain dio ez dakiela nomina aurrerapenekin nola jokatuko duten egoera normalizatzeko. LABek eskatu zuen langileak berak erabaki dezala aurrerapena nahi duen ala ez eta zenbatekoa. Argi baino argiago adierazi genuen: lehendabizi, gobernuak kendu zigun legearen arabera gurea zen lansaria; gero, %100eko nomina aurrerapenak egin zizkiguten, pagaren zati bat kobratuta geneukala. Administrazioa izanik horren guztiaren erruduna, haiek eman behar dute langile guztientzako soluziorik onena. Betidanik egin izan dira nomina aurrerapenak norberak eskatuta, hortaz, nahi duena eska dezala behar duena eta nahi ez duena ez.

## LAN EGUTEGIA

Mahai Orokorrean aterako denaren zain daude. Jakina denez, Madrilek errekurritu du Eusko Jaurlaritzaren lan egutegia, 35 orduko astea jasotzen du-eta. Hori ebatzi arte 2016ko egutegia luzatuta geratu da.

Bileran komentatu zuten langile batzuei ez dietela onartu antzinatasunagatiko egunik (oporraldi eta norberaren kontuetarako egunak). Begiratuko zutela esan zuen sailak. Iaz ere ez ziren agertzen egun horiek EIZUn eta azkenean ez zen egon arazorik ematerakoan. Badakigu langile batzuek eskatu eta baita disfrutatu ere egin dituztela. Behargin baten batek arazorik izango balu jakinarazi diezagula. Kontu hau lan-bileretan jorratu behar direnetako bat da.

## LEKUALDATZE LEHIAKETA

Gero eta plaza gutxiago ateratzen dituzte, hori dela-eta dauden guztiak eskaintzeko exijitu dugu. Horren harira, LABek honako hau azaldu zuen: gaur egun lanpostu guztiak "betegabeko" badute ere izena, praktikan betegabetzat eta hutstzat hartzen jarraitzen dute, lekualdatze lehiaketara eta EPera begira. Hona hemen azalpena: plaza bat lekualdatze lehiaketan eskaini -betegabe zein ondoriozkoa izan, berdin dio- eta inori esleitu ezean huts bihurtzen da eta hurrengo oposizioarako erreserbatzen dute. Horiek horrela, eskatu genion sailari lekualdatze lehiaketan ere sartzeko lanpostu hutsak eta esleitu gabe geratzen direnak hurrengo EPEan eskaintzeko, betiere sindikatuekin negoziatu ostean.

Bestalde, aurreratu ziguten laster euskara dela-eta berariazko lehiaketa argitaratu behar dutela.

## LAN-POLTSAK

Lan-poltsak ireki eta eguneratzean behar bezala baino beranduago ibiltzen da administrazioa, horregatik bizkorrago aritzeko eskatu genien. Auzitegi medikuen datuak eguneratzen hasi behar dute. Kontua da datuak sistema informatiko batetik beste batera pasatzea dela. Horregatik uste dute errazagoa dela proba egitea talde txiki horrekin eta, horrela, kidego handiekin suerta daitezkeen erroreak saihestu.

Lan-poltsak kudeatzeari dagokionez, datu batzuk berehala aintzat hartu beharko lirateke, euskara kasu. Esaterako, hizkuntza gaitasuna lortu eta, ondorioz, betekizunarekin bat egin arren, bitarteko langile batzuei ez diete deitzen perfilatutako lanpostuetan aritzeko, lan-poltsa

eguneratu ez eta kualifikazio berria ez agertzeagatik. Horrelakoetan, hizkuntz-betekizuna duten plazetan izendatzeak berehalakoa izan beharko luke eta puntuazio berriaren arabera sailkatzea lan-poltsa irekitzean edo berria osatzean egin liteke. Dena den, gai hau hurrengo lan-bileretan eztabaidatuko dugu.

## ORDEZKAPEN-ERREGIMENA

Mahaian komentatu zuten araua ez dela betetzen ari. Datozen lan-bileretan jorrazeko gaia da.

## EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIA EPAITEGIAK

Eguneroko salaketa bera: epaitegi hauetan lan egitea gero eta nekosoagoa da eta dagoeneko eutsiezina. Sindikatu guztiek eskatu genituen askotariko hobekuntza laboralak: ordainsariari, ordutegiari, antolakuntzari eta baita lan-espazioei dagozkienak. LABek, hain zuzen ere, eskatu zion zuzendariari antola dezala batzarra kontu honetan zerikusia duten estamentu guztiekin: epaileak, fiskalak, letraduak, poliziak, saila bera eta baita sindikatuak ere. Horren harira, jakinarazi genion LABek eskatu du epaileak batu daitezela emakumearen aurkako indarkeria epaitegietako langileen lan-baldintzak hobetzearen inguruan eztabaidatzeko. Epaitegi horietan oso berandu arte lanean egon behar dutenean, gehien-gehienetan izaten da agenda beteta dutela auzi gehiago sartzen dizkietelako, inoiz agenda bikoiztu arte.

Bilboko indarkeria epaitegiek 13ak arte daukate irekia agenda eta 4 auzirekin betetzat jotzen da. Oro har horixe izanik ohiko lan-bolumena, 15etatik aurrera lan egitera behartuta egoten dira, baina horretara eginak daude honezkerok. Hala ere beste fenomeno bat gertatzen da salbuzpenezkoa bada ere: agenda beteta egonda poliziek atxilotuak ekartzen dituzte epaitegira; edo babes agindua eskatzen dute epaitegian zuzenean. Horrek kolapsatu egiten du epaitegia eta eragiten lanaldia ia gauera arte luzatzea. Berrito diogu, behin baino gehiagotan agenda doblatu egin da.

Gisa horretako gertaeretan –goian esana dugu ohiz kanpokoak direla- agenda beterik dagoela suertatzen diren auziak guardia epaitegiak bere gain har ditzala eskatzen du LABek. 13etatik aurrera eta asteburuetan egiten duen modu berean. Horrek guardia epaitegientzat ez luke eragozpen handirik ekarriko okasio horiek oso apartekoak eta epaitegiak 10 baitira. Indarkeria epaitegietan, ordea, lasaitua izango litzateke.

Behin eta berrito esan genuen indarkeria epaitegiek, orokorrean, hobetze ugari behar dutela. Dirua ez ezik lanaren antolaketa ere berrikusi beharrean daudelako. Esaterako, Getxon, indarkeriaren inguruko jarduna guardian daudela egiten dute eta gainerako herrietan ez. Irizpideak bateratu behar dira eta, aldi berean, langileen eskubideak errespetatuko dituzten arauak sortu. Eta jakina, horrek ezin du ekarri herritarren eskubideetan inolako murrizketarik, kontrara baizik: lan-baldintza duinetan eginez gero lana publikoa askoz hobeto artatuko dute, dudarik ez egin.

## LIZENTZIAK ETA BAIMENAK

Kontu hau datorren lan-bilerarako utzi zuten. Hala ere, entzun behar izan genion zuzendariari arazo globalak baino ez dituela eztabaidatuko, hau da, ahaztu kasu partikularrak. Izan ere, “denok jasan behar izan dugu gustukoa ez genuen ebazpenaren bat” esan eta lasai asko geratu zen. Orduan LABek arrapostu zion, ezetz, hori pentsatu ere ez; ezezkoa idatziz eman

dezatela, legeak agindu bezala, eta errekurritu egingo dugula. Arazo guztiak norbanakorenak izaten hasten direla eta kolektibo bihurtuz bukatzen.

## DONOSTIAko BJB

Txunditurik geratu ginen! Aurreko sailari buruz Miren Gallastegui sailburuordeari entzun genizkionak entzunda –oso-oso txarto egin zutela; ez zutela negoziatzen; eta hainbat eta hainbat komentario gehiago bota ondoren esan zuen BJBaren inguruan ordura arte egindako guztia atzera botako zutela sindikatuekin hitz egin arte- sinistu ezinik geunden. Izan ere, zuzendari berriak esan zuen BJKOrera bidalia zutela dena eta asmoa dutela abenduan ezartzea Donostian BJB. Noski, sindikatuok aurkeztu genituen alegazioetako bakar bati ere jaramonik egin gabe.

## LEHEN AUZIALDIKO EPAITEGI ESPEZIALIZATUAK (Zoru klausulak)

3 epaitegi espezializatu behar dituzte, bat eskualdeko: Bilboko 11 zki.koa; Donostiako 8koa; eta Gasteizko 5koa. Hau guztia badakigu langileek kontatu digutelako, ez sailak esanda. Zuzendariak uko egin zion guri informazioa emateari, ez zuen esan ere zenbat langile kontratatu behar duten. Esan genion bageneuzkala datu batzuk baina gezutatu zituen. Argi utzi zuen jende guztiak esan ziola Donostiako epaitegian ez zela beharrezkoa inor kontratatu. LABek erantzun zion ohartarazi egin diotela informazio hori ez dela zuzena: ezinezkoa da Gipuzkoak Arabak baino zenbaki txikiagoak ematea, biztanle kopuruari erreparatzea baino ez da-eta.

## LABUR ESANDA

Bilera honen helburua Isabel Gabriel zuzendari berriak bere burua aurkeztea zen. Bide batez, aprobeztatu zuen bere curriculuma xehatzeko eta omen duen administrazioaren gaineko “zeharkako ikuspegia” harro aipatzeko. Edonola ere, LABi bilerak balio izan dio jakiteko sail honek, eta bereziki sailburuordeak, gezurra esaten dutela. Gallasteguik agindu zuen guztia-guztia zuzendari berriak ezeztatu baitu.

Eta hori gutxi balitz, zuzendaria murrizketekin eta gardentasun ezarekin jokatzeko hasi da: gai batzuen inguruan ez zigun eman nahi izan informaziorik; eta beste kontu batzuk sartu nahi izan genituen –esaterako 6 zki.ko administrazioarekiko auzietako epaitegian beharrezkoak diren errefortsuak- ezetz, ez zirelako gai globalak eta ez zuen eman aukerarik.

Egia da esan zuela gogor lan egingo zuela eta deituko gintuela alde biko bilerara eta geroago hasiko ginela lan-bileretan zenbait gai jorratzen, baina erakunde sindikal bakoitzeko ordezkari bana, besterik ez zuela onartuko. Alde biko batzarrerako jakinarazi diguten datari erreparatuz gero, ekainaren 26a, ikusten dugu zuzendaritzak motel baino motelago jarraitzen duela. Sasoi honetan akaso oporraldia burutik kendu ezinik?

Hitz batean, garai eskasak ez zaizkigu atertu. LABen uste dugu ekipo berri honek ia oharkabean igaro nahi duela Justizia Saitetik eta EAJren esku zegoen aurrekoaren ildo beretik jarraitu. Ikusi beharko ditugu batzuk esaten PSE-EErekin negoziatzen jarraitzen dela, baina desepzioa izan da, benetan. Aurrekoen antzera jokatu behar dute ere, ondo geratu nahian, elkarlana eskatzen dute. LABek ez du inolako asmorik kontinuisismoarekin segitzeko: aurrekoarekin apurtzen dute edo bestela aurrean izango gaituzte.

2017-06-01